

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Tere Arregi Altuna*

*Donostia,  
Gipuzkoa  
(1929)*

Aurkibidea



## Biografia



Donostiako Konstituzio plazako etxe batean jaioa, bertan bizi izan da beti. Hura zen bere jolaslekua ere, umetan. Aita funeraria bateko langilea zen. Bederatzi anai-errebetan gazteena, Elbira Zipitriarekin ibili zen ikastolan gerra aurretik, Juan de Bilbao kalean. Gero, Elizaranen, mojekin, erdaraz. Mekanografia ikasten ere jardun zuen akademia batean; ordurako, baina, lanean zebilen. 14 urterekin hasi zen bulebarreko Sehaska arropa dendan saltzaile. 17rekin, berriz, Errenteriako fundizio batean bulegoko lanak egiten zebilen. Ezkontzeko utzi zuen lana. Sei seme-alaba izan zituzten. Bere ahizpa Karmenek ere hitz egiten du, nahiz eta bideoan agertu ez.

## Zintak

### DON-023

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-09-30
- **Iraupena:** 69 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

## Pasarteak

### 1. Konstituzio plazan jaioa

- **Erref:** DON-023/002
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:00:28. **Bukatu:** 00:02:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

#### Laburpena:

<p>Donostian jaioa, Konstituzio plazako etxe batean, Parte Zaharrean. Ama donostiarra zen eta aita San Pedrokoa. Etxean bainugela zuten, baina ez zen ohikoena. Bederatzi senidetan txikiena.</p>

### Transkripzioa

- Nun jaio ziñan zu?
- Donostin, etxe hontan bertan.
- Etxe hontan bertan?
- Behekoan, behekoan. Behekoan gurasuak bizi zian, eta ni beatzigarrena naiz nere etxian eta denak jaio giñan etxe hortan.
- Konstituzio plazan.
- Bai. Eta nere ama´re bai, e? Ama´re bai jaio zan hemen, bizitza hontan.
- Gurasuak nunguak ziran? Ama Donostiakua...
- Ama donostiarra eta aita San Pedro edo... San Pedrokua uste det zala, bai.
- San Pedrokua?
- Bai. Zeatikan aita zuten, ez dakit, hoietakua... ez diala bizitzen beti leku berberian. Nola esaten da?
- A! Zeukan lana, hola, tokiz aldatzekua?
- Bai. Nik ez dakit ze izango zan, baiñon... zeatikan bat da herri batekua, bestia bestekua... horregatik dakit aldaketa egiten zutela. Bai.
- Eta hau, etxia, nolakua zan zu jaio ziñanian? Zu umia ziñala.
- Hemen ez nitzan jaio, e? Beheko etxian. Bai. Nola zan etxia? Ba, pasillo haundi batekin. Eta gero, ba, atea, badakizu, gelak eta komuna. Baiñon gure etxean gendun baiñua. Zeatikan osaba gendun holako gauzak saltzen zuna, eta jarri zigun baiñua. Besteetan ez dakit, ez det uste zeukatenik baiñurik.
- Bai, leku askotan ez zan egongo igual, ezta?
- Ez, ez, ez. Nik esango nuke, baiñon gehiegi esatia ez ote da, ez dakit, baiño etxe hontan bizi zianak uste det zutela haietako egurrezko tapak komunian? eta tapa jartzen zitzaiona edo... Bai, oso... Uste det ikusi detala nik, gaiñea, hori.
- Eta zuek esan dezu bederatzi senide ziñetela.
- Bai.
- Eta zu txikiyena?
- Bai, ni txikiena.
- Orduan, etxia beteta egongo zan.
- Bai, beteta, bai, bai, bai.
- Eta nola iten zenuten lo? Neskak gela batian eta mutillak bestian?
- Bueno... Bai, bai, mutillak biyak batian, gela batian. Eta gero gu, ba, besteetan, bina edo, ez dakit.
- Klaro, asko ziñeten.
- Eta gurasoak ere beste gela batian, gogoratzten det /gogoratzet/. Hola. Ez dakit zenbat gela zitun ordun: bat, bi, hiru... hiru kanpoaldea, bat, lau, baiñua eta sukaldia.

## 2. Konstituzio plazako negoziok

- **Erref:** DON-023/003
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:02:59. **Bukatu:** 00:05:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

### Laburpena:

<p>Konstituzio plazan farolak zeuden. Baserritarrak saltzera joaten ziren. Arkupeetan egoten ziren egunero; bakar batzuek zaldi-karroarekin joaten ziren bertaraino. Esne saltzaileak. Plazako dendak. Baroja inprenta.</p>

### Transkripzioa

- Eta hemen, Konstituzio plazan, zer zeon arkupetan-eta? Nolakua zan orduan?
- Arkupetak-eta berdin. Farolak zeuden argia emateko. Oain daude inguratua, ezta? Ba, lehen plaza erdiyan zeuden ez dakit zenbat. Ves? Gauza hoiak guziyak nere ahizpak argituko litzuke hobeto.
- Ez, baiña zuk esan gogoratzen dezuna ta lasai.
- Bai. Ta hori. Hori. Eta gero, zeak, baserritarrak etortzen zian saltzea. Nere garaiyan ya arkupetetan egoten zian, e? Aiuntamientuai zea bat emanaz. Ez dakit nola deitzen zaion.
- Baimen batekin edo?
- Baimena ez, dirua ere bai. Bai, bai. Eta hor egoten zian saltzen. Oain ez dakit zenbat urte.
- Baiña egunero?
- Egunero-egunero. Bai, bai. Ez zan feriya bezela, ez. Etortzen zian bere baserritatik honea saltzea.
- Eta nola etortzen zian, zaldi-karruan eta?
- Ba, zaldi-karruan bateonbat bai, baiñon bestiak ez dakit autobusian eo nola etorriko zian. Bai. Bateonbat bai honeaiño azaltzen zan bere zaldi ta guzi.
- Eta hemen ze denda edo ze taberna zeuden?
- Ba, tabernak... Zea, komestibles denda, bai. Hiru nik ezagutu ditut.
- Hiru? Hementxe bertan?
- Hemen. Hemen, e? Arkupeta hauetan. Zeatikan aurrian ez det behiñ´e... bakarrik fruteri bat, txokuan. Baiñon hori ya nahiko berri da, e, kendu zutela ta hori.
- Eta tabernarik-eta ez zeon orduan hemen?
- Bai, bai, tabernak... Ez... Zea ere bai, este... nola da hori? Esnea. Esnea saltzen zutenak ere bazian. Arkupetetan, e? Vamos...
- Arkupetan. Esnedunak?
- Esnedunak? Esnedunak denak seguruasko baserritarrak, baiñon denda ere bai zegon, este... esnia saltzen zutena.
- Eta inprenta bat ez zeon hemen?
- Aurrian. Aurrian, bai. Baroja. Baroja deitzen zana. Egondu dia bi Baroja-k. Eta batian jartzen zun "Esta es si no otra la primitiva casa Baroja", zeatikan biak, ez dakit, Baroja... ez dakit nola zian, baiñon bi Baroja zian.
- Bi Baroja. Orduan, kopetentzia zeon hor?
- Bai.

### 3. Parte Zaharreko sagardotegiak

- **Erref:** DON-023/005
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:05:56. **Bukatu:** 00:07:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

**Laburpena:**

Bi Baroja zeuden: inprenta eta liburudenda. Lehen ez zegoen tabernarik Konstituzio plazan. Sagardotegiak zeuden Parte Zaharrean, eskailerak jaitsita; Anjel kalean zegoen bat. Sagardo bila joaten ziren umeak, eta zizarra ematen zuten han.

**4. Ikastolatik mojetara**

- **Erref:** DON-023/006
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:07:23. **Bukatu:** 00:09:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

**Laburpena:**

Zazpi urterekin hasi zen eskolarara joaten, mojetara. Elvira Zipitriaren ikastolara joaten zen gerra aurretik; Kanpandegi kaleko kapilan egin zuen Jaunartzea. Gero dena erdaraz.

**5. Euskararen transmisioaren etena**

- **Erref:** DON-023/010
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:11:56. **Bukatu:** 00:12:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena:**

Amak etxean euskaraz egiteko esaten zien amak beti. Lagunek ez dakite euskaraz, nahiz eta guraso euskaldunak izan.

**6. Gerra hasi zenean ez ziren inora joan**

- **Erref:** DON-023/014
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:15:53. **Bukatu:** 00:17:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

**Laburpena:**

Gerra hasi zenean Terek 7 urte zituen. Ez ziren inora joan. Dendak miatzen zituztela du gogoan.

**7. Gerraostean, ogia txarra**

- **Erref:** DON-023/015
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:17:24. **Bukatu:** 00:20:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena:**

Gerraosteko gosea. Errazionamenduko ogiarekin gogoratzen da. Amak ez zuen kontrabandoko jakirik nahi izaten. Bi anaiak gudara joan ziren eta ahizpa zaharrena moja. Aitak funeraria batean egiten zuen lana; gauetz ere joaten zen, deitzen bazioten.

**8. Sehaska dendan lanean**

- **Erref:** DON-023/017
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:20:48. **Bukatu:** 00:23:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

**Laburpena:**

Sehaska dendan egon zen lanean, Boulevardean; jaioberrientzat arropa saltzen zuten. Oraingo ume arropa oso desberdina da.

**9. Ama jostuna zen**

- **Erref:** DON-023/018
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:23:01. **Bukatu:** 00:24:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena:**

Ama jostuna zen. Etxerako josten zuen batik bat. Tela denda asko zeuden. Gerraostean tela falta izan zen, gero ez.

**10. Anaiak, bakoitza bando batean borrokan**

- **Erref:** DON-023/019
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:24:46. **Bukatu:** 00:25:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

**Laburpena:**

Anaiak bakoitza bando batean ibili zen borrokan, eta amak kezka zuen toki berean ez egokitzeko.

## 11. Erreteriarra lanera

- **Erref:** DON-023/021
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:25:53. **Bukatu:** 00:27:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

### Laburpena:

14 urterekin hasi zen lanean. Gero Erreteriarako Danona fundizioan hasi zen lanean, bulegoan. Tranbian eta topoan joaten zen. Etxera joaten zen bazkaltzera. Larunbatetan lana zuten hasieran. Gero, "sabado ingles" jarri zuten.

## 12. Igandero mezetara

- **Erref:** DON-023/022
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:27:55. **Bukatu:** 00:28:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

### Laburpena:

Igandetan mezetara joaten ziren. San Bizente zen beraien parrokia, baina Santa Mariara ere asko joaten ziren, Elizarango moja ikastetxetik.

## 13. Kaiko mugimendua

- **Erref:** DON-023/026
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:30:35. **Bukatu:** 00:33:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

### Laburpena:

Kaian mugimendu handia zegoen. Arrain saltzaileak kalez kale ibiltzen ziren saltzen. Kaiko lanak. Asto kalea.

## 14. Zapata garbitzaileak eta turistak

- **Erref:** DON-023/027
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:33:13. **Bukatu:** 00:35:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Oporrak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Lanbideak » Antzinako lanbideak

**Laburpena:**

Boulevardra nolakoa zen lehen. Osabak denda zuen, bainurako gauzekin. Boulevardreko ordulariaren ondoan egoten ziren zapata garbitzaileak, Cafe Orientalen ondoan. Turistak denbora askorako etortzen ziren lehen, familiak.

**15. Tere gutxitan joaten zen erromerietara**

- **Erref:** DON-023/028
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:35:59. **Bukatu:** 00:38:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

**Laburpena:**

Ez zuten bidaiatzen. Hernanira joaten ziren erromeriara, baina Tere gutxitan joan da. Konstituzio plazan txistua izaten zen eta han egiten zuten dantza. Zinemara ere gutxi joaten zen. Akademia batean administrazio kontuak ikasi zituen, Idiakez kalean.

**16. Umetan ikasitako abesti batzuk**

- **Erref:** DON-023/030
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:39:05. **Bukatu:** 00:42:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

**Laburpena:**

Abesti batzuk kantatzen ditu. Etxean asko abesten zuen amak, eta "berriz, berriz" esaten zioten. Amak denetik abesten zuen, baita zarzuelak ere. Ipuinik ez zieten kantatzen.

**17. Babarrunak eta antxoak**

- **Erref:** DON-023/031
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:42:45. **Bukatu:** 00:45:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

**Laburpena:**

<p>Zer jaten zuten. Babarrunak, lentejak, garbazntzuak, zopa... haragia tomatearekin. Antxoa asko zegoen. Konstituzio plazan bertan (lau janari denda zeuden) eta Bretxan egiten zituzten erosketak. Bretxako arrandegia. Kaian oparitu ere egiten zuten arraina; zapia betetzen zuten.</p>

## 18. Parisera ezkonbidaian, trenez

- **Erref:** DON-023/034
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:47:08. **Bukatu:** 00:49:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

### Laburpena:

Parisera joan ziren ezkonbidaian. Aita sukaldaria zen, Parisen ikasia, eta gurasoak ere hara joan ziren ezkonbidaian. Trenz joan ziren Irundik. Auto gutxi zeuden. Bizikletarik ez zuten; alokatu egiten zituzten, orduka.

## 19. Orduko orrazkera eta janzkera

- **Erref:** DON-023/036
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:50:02. **Bukatu:** 00:52:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

### Laburpena:

Ile apaindegira ez ziren joaten. Etxean apaintzen zuten ilea; Terek egunero jartzen zituen ruloak. Perkalezko soinekoak erabiltzen zituzten udan.

## 20. Medikuak eta emaginak

- **Erref:** DON-023/038
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:52:27. **Bukatu:** 00:55:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

### Laburpena:

Etxeko medikua zuten, lehenengo Don Nicolas eta gero Don Luis. Bertakoak ziren. Ez ziren haginlariarengan joaten. Etxean jaio ziren. Terek ere etxean izan zituen gehienak. Emagina joaten zen laguntzera, San Ignazio klinikakoa. Berehala bataiatzen zuten umea. 28 urterekin ezkondu zen. Lana utzi zuen ezkontzeko, derrigortuta. Sei seme-alaba izan zituen.

## 21. Seme-alabak ere Zipitriarekin ikastolan

- **Erref:** DON-023/039
- **Iraupena:** 0:04:13. **Hasi:** 00:55:12. **Bukatu:** 00:59:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

**Laburpena:**

Gerraosteko isilpeko ikastolak abian ziren seme-alabak izan zituenerako. Elvira Zipitriarekin ibili ziren bere seme-alabak. Harremanetarako zaila zen Zipitria. Frantsesa ikastera ere joaten ziren umeak. Bederatzi urte arte ikasten zuten ikastolan.

**22. Euskal Jaiak eta bertsolariak**

- **Erref:** DON-023/041
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:59:35. **Bukatu:** 01:01:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

**Laburpena:**

Herriko ospakizunak. Euskal jaietan herri kirolak izaten ziren. Lehengo bertsolariak: Lizaso, Basarri, Lazkao Txiki... Bertso-paperik ez zuten ezagutu, baina amak bai, Bretxan.

**23. Anaien umetako bihurrikeria**

- **Erref:** DON-023/044
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 01:03:23. **Bukatu:** 01:06:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

**Laburpena:**

Bi anaiek umetan egindako bihurrikeria. Bat balkoiko baranda gainean jarri zen, 3. solairuan. Amak zigortu egin zuen: hilabete merienda gabe. Ama ez zen zigor zalea, nahiago izaten zuen hitz egitea.

**24. Osaba, Moderno frontoiko langilea**

- **Erref:** DON-023/045
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 01:06:02. **Bukatu:** 01:08:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Pilota

**Laburpena:**

Postre garaiko anekdota bat kontatzen du, gingekin gertatutakoa. Osaba ezkongabea beraiekin bizi zen. Gazte hil zen. "Korredorea" zen Groseko Moderno frontoian. Beraiek ez ziren joaten; gizonezkoen kontua zen batik bat.

**25. Bekaturako bidea**

- **Erref:** DON-023/046

- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 01:08:17. **Bukatu:** 01:08:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

**Laburpena:**

Lehen dena zen bekaturako bidea. Arrazoi zutela dio: utziz gero, neurria galtzen duzu.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
*2026-05-11*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com